

AITA PATXI BENERAGARRIA

1

Hona albiste barria
danontzat jakingarria:
Aita Patxiren irudia da
Oruen jarria.
Maitasunez ezarria,
betiko ezaugarria:
Aita Santuak izendatu dau
“beneragarria”

2

Jesus dala bere jebe,
gurutza dauka zutabe;
bien artean Aita Patxi hau
santu egin dabe.
Zerbitzari ta mirabe,
beste loturarik gabe;
ontasunean goruntz eginaz
suabe-suabe.

3

Jesus da Maisu bakarra
Beragandik dau indarra,
kalbarioko santu-eskolan
ikasle azkarra.
Nun pena edo negarra,
gaixo edo zoritzarra...
Harritzekoa Aita Patxiren
lagungu beharra!

4

Agur Mari, Santa Mari...
Errosario ugari,
zati bateko lana badauka
jarrita kontari.
Autostopisten zaindari,
Tokatzen jako berari:
zeru-bidean izan dakigun
lagun ta gidari.

5

Eskuak zabalik dago,
bihotza dau zabalago;
Jesus lez Aita Patxi egin da
guztien esklabo.
Laguntzen ezin gehiago,
zerbitzen, barriz, akabo...
Berak esana: “Zeruan be ni
geldirik ez nago”

6

Inor badago gaixorik,
ezin emonik pausorik,
Aita Patxik ez eukan joateko
inoiz arazorik.
Bihotz ta esku jasorik,
ez da falta gaur txalorik:
“Gure artean ez da ikusi
inoiz holangorik!”.



A. Martzel